



LANKIDETZA HITZARMENA; EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAREN ETA SEGURTASUN SAILAREN ARTEKOA; IKASKIDEEN ARTEKO JOKABIDE DESEGOKIAK, INDARKERIAZKO EKINTZAK ETA ESKOLA JAZARPEN (BULLYINGA ETA ZIBERBULLYINGA) ETA, OROKORREAN, ESKOLA GIROAREN BARRUAN ELKARBIZITZAN ONDORIOAK IZAN DITZAKETEN EGOERA GUZTIAK PREBENITZEKO NEURRIEI BURUZKOA

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 14a.

ESKU HARTZEN DUTE

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburu Cristina Uriarte Toledo andrea.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburu Estefanía Beltrán de Heredia Arroniz andrea.

ADIERAZTEN DUTE

Azken urteotan azterlan askok aholkatzen dute elkarbizitzaren gaia eremu guztietan lantzea alderdi positiboak ardatz izanda. Eskola-giroaren kasuan premiazkoa da adieraztea elkarbizitzarako hezteak ez dela gatazkak daudela ukatzea, baizik eta gatazka horiei aurre egiten eta modu positiboan eta eraginkorrean gainditzeko jakitea. Nolanahi ere, kontua da elkarbizitza ahalbidetu eta gordetzen duten estrategietan arreta handiagoa jartzea elkarbizitza hausten duten kasu larrien aurreko unean uneko erantzunean baino.

Ikastetxeek edozein indarkeria-motaren aurkako konpromisoa hartu eta beren esku dauden baliabideak abian jarri behar dituzte prebentzio-neurriei garrantzia emateko, era horretan fenomeno disruptibo, asaldatzaile eta bortitzen aurkako prebentziozko gunea eta giroa sortzen laguntzeko.

Azken ikasturteotan ikastetxeen esku ikasleen jokabide desagokiak kudeatu eta zuzentzeko zenbait neurri eta prozedura jarri dira, bereziki ikaskideen artean hainbat motatako tratu txarrak azaltzen diren egoerei aurre egiteko.

Neurri horiek guztiek ikastetxeei eman diete eskola-elkarbizitza sustatzeko barruan bultzatu beharreko jarduketak-multzoa eta beren helburua da antzemandako jokabide desagokiaren kasuan ikastetxeen jarduerak ahalik eta azkarrena, eraginkorrena eta segurua izango dela bermatzea.

Ikastetxeetan edozein indarkeria-mota prebentzeko ekimenik hoberenetako bat da hezkuntza-komunitateko harremanak kontzeptu hauetan oinarritzea: pertsona guztien eskubide eta betebeharrak, duintasunaren errespetua, jokabide prosozialak sustatzen dituzten irizpide hezigarri eta integratzaileak eta gatazkei heltzeko elkarrizketaren erabilera. Alderdi horiek guztiak elkarbizitzarako programa eta plan horien muina dira.

Horregatik, beharrezkoa da ikastetxeetan indarkeriaren kultura gainditzeko prozesua bultzatzea eta horretan sakontzea, ikasleak sozializatzeko ez ezik, baita ikastetxeetatik hezkuntza-komunitatera zabaltzeko elkarrizketa, errespetua, ardura eta komunikazioa elkarbizitzaren oinarria direla.



Hezkuntza-administrazioak elkarbizitza positiboa lantzeko ikastetxeei proposatutako neurri eta prozeduren artean hauek nabarmendu behar ditugu:

- Elkarbizitzarekin eta aukera-berdintasuna eta eskubideak errespetatzearekin lotuta dauden gaiei buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.
- Gatazketako komunikazio- eta bitartekotza-programak ezartzea, horien bidez ikasleek gaitasun pertsonalak eta sozialak eskura ditzaten; hala nola asertibitatea, autoestimua, enpatia eta balio etiko eta moraletan oinarritutako komunikazio-trebetasunak.
- Ikasle-batzordeak eratzea orokorrean elkarbizitza hobetzeko, sor daitezkeen gatazkak antzemateko eta berorien konponbiderako laguntza emateko.
- Hezkuntza-komunitate osoarentzako topaketak, hitzaldiak eta tailerrak sustatzea elkarbizitza positiboa eraikitzen bideratuta.
- Hezkuntza-komunitateko sektore guztiak –bereziki, familiak– inplikatzeko; hain zuzen, ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko egituretan eta neurrietan parte har dezaten.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren prestakuntza-programa eta -ekintzetan parte hartzea.
- Tutoretza-plana prestatzea, aniztasunaren balio positiboa errespetatzearekin eta aitortzearekin loturiko gaiak sartuta.
- Pertsonaren garapen integralean oinarritutako hezkuntza-eredua lortzera zuzendutako neurriak sustatzea, sexuaren araberako estereotipoak eta rolak alde batera utzita.

Alde honetatik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arteko hitzarmen honen xedea da elkarbizitza modu positiboan lantzeko neurriak eta prozedurak zehaztea.

Hitzarmenak elkarbizitzaren aurkako egoerak prebenitzeko ekintzetan sakondu nahi du eta, halaber, eskola-giroaren barruan ikastetxeei elkarbizitzan ondorioak izan ditzaketen egoerak erarik egokienean kudeatzeko aukera eta baliabide gehiago eman. Horretarako, ikastetxeen esku prestakuntza-ekintza eta/edo -jarduera batzuk jarriko dira, Segurtasun Sailekoak diren eta gai horietan esperientzia duten langileek antolatuta eta emanda.

Prebentziora zuzendutako prestakuntza-eskaintza da, interesatuta egon daitezkeen ikastetxeentzat Segurtasun Sailak eskaini dezakeena. Adierazi behar dugu funtsezkoa dela gune eta esparru seguruak izatea, non eskola-umeek eta gazteek beren garapen osoa lor dezaketen. Horregatik, Segurtasun Sailak bere laguntza eta parte-hartzea eskaintzen ditu eskola-elkarbizitza hobetzen eta ikasleengan eragina izan dezaketen arazoei buruzko beste ikuspuntu bat ekartzen duen heinean.



KLAUSULAK

LEHENENGOA. HITZARMENAREN XEDEA

1.- Hitzarmen honen xedea da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Segurtasun Sailaren arteko lankidetzaren sustatzea; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez sostengatuta dauden ikastetxeei zuzendutako prebentzio-ekintzak eta -jarduerak abian jartzeko.

2.- Prestakuntza-ekintza eta -jarduera horien bidez hezkuntza-esparruaren barruan neurriak bideratu eta bultzatu nahi dira eta berorien ezarketan ere sakondu nahi da. Neurri horien helburua hau da: jokabide desagokiak eta indarkeriazko ekintzak prebenitzea, faktore positiboak edo prebentiboak babestea eta sustatzea eta elkarbizitza egokia aldatzen duten faktoreak gutxitzea edo neutralizatzea. Neurri horiek lehentasunez arreta berezia jarriko dute ikaskideen arteko tratu txarrak eta eskola-jazarpena (bullyinga eta ziberbullyinga) agertzen diren kasuetan.

Gainera, horrek lagunduko du guztion eskubideak eta askatasunak babesteko Ertzaintzak egiten duen lanaren rola gazteen artean sozializatzen.

BIGARRENA. PRESTAKUNTZA EKINTZAK ETA JARDUERAK:

1.- Hitzarmen honen esparruaren barruan garatu beharreko prestakuntza-ekintzak eta -jarduerak honela daude banatuta:

a) Ikastetxeetan garatu beharreko ekintzak, eta

b) Polizia-zentroetarako eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako bisitaldiak:

2.- Ikastetxeetan garatu beharreko prestakuntza-ekintzak eta -jarduerak hitzarmen honen jarraipen-batzordeak zehaztuko ditu ikasturte bakoitzerako eta, besteak beste, gai hauek har ditzake oinarritzat:

- Internet bidezko nabigaziotik sortutako arriskuak,
- Ikaskideen arteko tratu txarren eta eskola-jazarpenaren aurkako borroka,
- Gizalegearen kontrako jokabideak eragozteko eta gizalegezko balioak sustatzea,
- Droga-kontsumoaren errealitatea eta ondorioak.
- Bide-segurtasunaren gainera oinarritzat kontzeptuak ezagutzea eta barneratzea,
- Mendiko, hondartzako eta barne-uretako kirol- edo jolas-jardueretan hartu beharreko prebentzio-neurriak,
- etab.

Hitzarmen honen jarraipen-batzordeak prestakuntza-ekintza eta -jardueren eskaintzaren urteko programazioa zehaztuko du eta hitzarmenaren eranskin gisa erantsiko da. Hasiera batean, 2013-2014 ikasturterako aurreikusitako prestakuntza-ekintzen eta -jardueren eskaintza hitzarmen honen eranskinean agertzen dena da.

3.- Ikasleen artean Ertzaintzak burutzen duen lana sozializatzeko asmoz, Ertzaintzaren zentroetarako eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako ikasle-bisitaldiak programatuko dira.

Bisitaldiek programazioan agertzen den gutxieneko eta gehienezko lagun-kopurua izango dute. Adierazitako gutxieneko lagun-kopurura iritsi ezik, ikasturte edo ikastetxe batzuei proposamena egingo zaie bisitaldia elkarrekin egiteko.



Bisitaldian ikasleei Ertzaintzaren polizia-lanaren eta antolakuntzaren alderdi batzuk erakutsiko zaizkie eta, horrez gain, prestakuntza-ekintzetan jasotako gaietako bati buruzko hitzaldia emango da.

4.- Prestakuntza-ekintzak edo -jarduerak kasu bakoitzean xede dituzten ikasleen adina kontuan hartuz programatuko dira eta beren edukiak eta hizkera parte-hartzaileen adinera moldatuko dira.

Prestakuntza-ekintza edo -jarduera bakoitzeko parte-hartzaileen gehienezko edo gutxieneko kopurua programazioan zehaztuko da; hain zuzen, parte-hartzaileekiko elkarreragina ahalbidetzeko moduan. Orokorrean, kopuru hori 40 eta 100 ikasle artean ibiliko da. Jarduera horiek modu bateratuan antolatu ahalko dira ikastetxe batzuentzat, betiere beroriek txikiak badira eta hala egin ahal bada.

Ekintzak eta jarduerak emateko hizkuntza ikastetxeen eskakizunetara egokitzen saiatuko da; dena den, ahal dela euskaraz emango dira.

Jardueraren iraupena bere programazioan zehaztuko da eta programazio horren eta sortuko den dinamikaren arabera izango da.

Ekintzak amaitu ondoren bertan dauden ikasleei gogobetetzeari buruzko inkesta emango zaie, hitzaldia hobetze aldera bere formatuaren eta edukiaren berregokitzapena aztertze helburuarekin.

HIRUGARRENA.- KONPROMISOAK.

1.- Segurtasun Saila prestakuntza-ekintzak eta -jarduerak antolatzeaz eta emateaz arduratuko da, ikastetxeentzako kostu gehigarririk gabe eta jarraian azalduko dena alde batera utzi gabe.

2.- Ikastetxeek lokala eta instalazioak eta behar diren ikus-entzunezko baliabideak jarri beharko dituzte ikastetxeetan burutu beharreko prestakuntza-ekintzak direnean. Eskuarki, deitutako lagunak egoteko leku nahikoa beharko da eta ikus-entzunezko baliabide egokiak jarriko dira (bideo-proiektagailua, pantaila, bozgorailuak, internetekiko konexioa duen ordenagailua).

Ikasleen lekualdaketa antolatu eta koordinatzeko lana ikastetxeen ardurapean egongo da, prestakuntza-jarduera beste ikastetxe batean egiteko zein polizia-zentro baterako edo Polizia eta Larraldietako Euskal Akademiarako bisitaldia egiteko.

Ekintzak eta jarduerak egin bitartean ikasleek portaera ona izatea ikastetxeetako arduradunenei dagokie.

LAUGARRENA.- ESKABIDEEN KUDEAKETA.

1.- Lankidetzeta-hitzarmen honetan adierazitako jarduerak burutzeko interesatuta dauden ikastetxeek beren mugapeko ertzain-etxeko burutzari zuzendutako idazki baten bidez egingo dute horretarako eskaria.

2.- Eskabidea gutxienez hilabete lehenago egin beharko da, era horretan jarduera burutzea eta jarduera hori azaldu behar duten pertsonen prestasuna bat etortzea ahalbidetzeko.

3.- Ikastetxeetan prestakuntza-ekintzak azaltzeko jasotako eskarien kopurua Segurtasun Saileko langileen prestasunaren menpe egongo da.

**BOSGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.**

Jarraipen-batzordea eratuko da, sail sinatzaileen ordezkari banak osatuta, hitzarmen honetatik sortutako urteko prestakuntza-eskaintza eta -programazioa zehazteko, baita hitzarmenaren segimendua egiteko eta haren garapenean hasitako ekintzak ebaluatzeke ere.

Sinadurak

Cristina Uriarte Toledo andrea

**Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Hizkuntza Politika eta Kulturako
sailburua**

**Estefanía Beltrán de Heredia Arroniz
andrea**

**Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko
sailburua**



Eranskina

**2013-2014 IKASTURTERAKO HITZARMEN HONEN BARRUAN JASOTAKO
PRESTAKUNTZA EKINTZEN ETA JARDUEREN ESKAINTZA**

A) IKASTETXEETAN GARATU BEHARREKO EKINTZAK:

1.- Interneteko arriskuak (ziberbullyinga).

Deskribapena	Internet bidezko nabigazioan dauden arrisku orokorrei buruzko sarrera eta azalpena, arreta berezia arrisku hauetan jarriz: adingabeak eraginpean hartzen dituztenak, zuzenbidearen aurkako jokabideak, ondorio legalak eta penalak eta prebentzio-erak.
Ikasleak	Lehen hezkuntzako 5. mailatik batxilergoraino eta lanbide-heziketaraino, edukiak ekintzaren xede diren ikasleen ikasturteak kontuan hartuz egokituta. Ekintza hau ikasleen gurasoei ere zuzendu ahal zaie.

2.- Ikaskideen arteko tratu txarrak eta eskola-jazarpena (bullyinga).

Deskribapena	<p>Eskola-jazarpenari eta/edo bullyingari buruzko aurkezpena, noiz eta non gertatzen den, inplikaturako pertsonak. Eremu honetan koka daitezkeen portaerak antzematea ahalbidetzen duen gogoeta, biktima gisa zein egile edo lekuko gisa. Gaiarekin loturiko polizia-jardunen gaineko erreferentziak barne sartuko dira, ertzain hizlarien lanbide-esperientziaz osatuta.</p> <p>Ikasleei galderak aurkeztea eta egitea jabetu daitezzen zeintzuk diren orokorrean tratu txarren egintzek -bereziki, emakumeen aurkako indarkeriak- berekin dakartzaten ondorioak eta erantzukizunak. Ahaleginduko da errespetu, berdintasun, enpatia, askatasun eta duintasunari loturiko balioak sustatzen. Ertzain hizlariak beren lanbide-esperientzia azalduko dute.</p>
Ikasleak	12 urtetik 18 urtera bitartekoak, edukiak eta hizkera ekintzaren xede diren ikasleen adinera egokituta.
Iraupena	1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.



3.- Gizalegearen kontrako jokabideak

Deskribapena	Ikasleei galderak aurkeztea eta egitea jabetu daitezen zeintzuk diren gizalegearen kontrako jokabideek berekin dakartzaten ondorioak eta erantzukizunak. Ahaleginduko da ardura, errespetu, tolerantzia eta elkartasunari loturiko balioak sustatzen.
Ikasleak	14 urtetik 18 urtera bitartekoak, edukiak eta hizkera ekintzaren xede diren ikasleen adinera egokituta.
Iraupena	1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.

4.- Droga-kontsumoa.

Deskribapena	Aurkezpena eta hitzaldia droga-kontsumoaren errealitatea eta ondorioak ikasleei ikustarazten dizkieten galdera batzuentzako erantzunak pentsatzera bideratuta. Ahal izanez gero, drogak bilatzeko txakur-erakusketa. Gaiarekin loturiko polizia-jardunen gaineko erreferentziak barne sartuko dira, ertzain hizlarien lanbide-esperientziaz osatuta.
Ikasleak	14 urtetik 18 urtera bitartean, edukia eta hizkera ekintzaren xede diren ikasleen adinera egokituta.
Iraupena	1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.

5.- Bide-segurtasuna.

Deskribapena	Bide-segurtasunari buruzko oinarrizko kontzeptuak aurkeztea eta ikasleek beroriek barneratzea. Oinezkoek errespetatu beharreko seinalerik garrantzitsuenak, segurtasun-neurriak ibilgailuetan. Ertzaintzaren zenbait ibilgailuren eta unitateren irudiez osatuta. Ahal bada eta erabiltzeko moduan egonez gero, Ertzaintzaren dotazio-ibilgailuen erakusketa.
Ikasleak	5 urtetik 6 urtera bitartekoak.
Iraupena	30 eta 45 minutu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.



6.- Prebentzioa kirol-jardueretan.

Deskribapena	Mendian, hondartzan eta barne-uretan dauden arriskuei buruzko azalpena eta hartu beharreko prebentzio- eta segurtasun-neurriak. Ertzaintzaren Erreskate eta Laguntza Tekniko Polizialaren Unitatea eta betetzen dituen zerbitzuak aurkeztuko dira, baita eremu horietan zauritutako edo galdutako pertsonak erreskatatzeko materiala ere.
Ikasleak	Lehen hezkuntzako 5. mailatik batxilergoraino eta lanbide-heziketaraino, edukiak ekintzaren xede diren ikasleen ikasturteak kontuan hartuz egokituta.

B) POLIZIA ZENTROETARAKO BISITALDIAK:

1. - Ertzaintzak Erandion eta Oiartzunen dituen zentroetarako bisitaldia.

Bisitaldiaren formatua:	Ikasleak eta irakasleak Ertzaintzak Erandion duen zentrora iritsi ondoren, helduei akreditazioa emango zaie. Berriaz bestelakorik adierazi ezean, ezin da instalazioen irudirik hartu. Txakur-erakusketa, espezialitateak hori egiteko moduan egonez gero. Ertzaintzaren zenbait dotazio-ibilgailuren erakusketa. Prestakuntza-ekintzetan jasotako gairen bati buruzko hitzaldia emango da; Ertzaintzaren egiturari, funtzioei eta zuzkidurari buruzko azalpenaz osatuta. Hitzaldiaren formatua hitzaldi bakoitzaren atalean aipatutakoarekin bat etorriko da. Agurra.
Lekua	Bisitaldietan gutxienez 40 lagun egongo dira eta gehienez 70. Adierazitako gutxieneko lagun-kopurura iritsi ezik, ikasturte edo ikastetxe batzuei proposamena egingo zaie bisitaldia elkarrekin egiteko.
Hitzaldi-kopurua:	Hilean gutxienez bisitaldi bat egingo da eskola-aldian zehar.



2.- Ertzaintzak Iurretan duen zentrorako bisitaldia.

Bisitaldiaren formatua:	Ikasleak eta irakasleak Ertzaintzak Iurretan duen zentrorira iritsi ondoren, akreditazioa emango zaie. Berariaz bestelakorik adierazi ezean, ezin da instalazioen irudirik hartu. Ikasgela batean bisitaldiaren nondik norakoak azalduko dira eta kirol-jardueretako prebentzioari buruzko hitzaldia emango da. Mendi-taldearen instalazioetarako bisitaldia. Bertan dotazio-ibilgailuak eta -materialak erakutsiko dira eta, ondoren, rokodromoan erreskate-kasu praktiko bat aplikatuko da. Urpekaritza-taldearen instalazioetarako bisitaldia. Bertan dotazioko ibilgailuak, ontzi arinak eta materialak erakutsi eta, ondoren, zentroko igerilekuan zenbait urpekaritza- eta bilaketa-teknika azalduko dira. Helikoptero-taldearen hangarretarako bisitaldia eta bertan erakutsiko dira erabiltzen diren materialak. Agurra.
Adin-tartea	Hitzaldia lehen hezkuntzako 6. mailaren eta batxilergoko 2. mailaren artean dauden ikasleei zuzenduta dago, baita heziketa-zikloetako baliokideei ere.
Lekua	Bisitaldietan gutxienez 50 lagun egongo dira eta gehienez 120. Adierazitako gutxienezko lagun-kopurura iritsi ezik, ikasturte edo ikastetxe batzuei proposamena egingo zaie bisitaldia elkarrekin egiteko.
Hitzaldi-kopurua:	Hilean gehienez bisitaldi bat egingo da, urritik maiatzera.

3.- Arkauteko Akademiarako bisitaldia.

Bisitaldiaren formatua:	Ikasleak eta irakasleak zentrorira iritsi ondoren, helduei akreditazioa emango zaie. Berariaz bestelakorik adierazi ezean, ezin da instalazioen irudirik hartu. Instalazioetarako bisitaldia: 50 minutuz, gutxi gorabehera; eta, batez ere, ikusiko diren instalazioak budokana, tiro-eremua, gimnasioa eta monolitoa izango dira. Museorako bisitaldiak, gutxi gorabehera, 40 minututik ordubete eta 15 minutura bitarteko iraupena izango du. Aukera moduan, ikastetxeentzat jolas- eta hezkuntza-jarduerak burutuko dira, 30 minutu inguruko iraupenarekin.
Lekua	50 pertsona inguru.



SEGURTASUN SAILA

Segurtasun Sailburuordetza
Ertzaintzaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Viceconsejería de Seguridad
Dirección de la Ertzaintza

ARABA/ALAVA	LAGUARDIA	adm_laguardia@ertzaintza.net	Baños de Ebro/Mañueta, Berantevilla, Bernedo, Elciego, Elvillar, Kripan, Labastida, Lagrán, Laguardia, Lanciego/Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda da Álava, Navaridas, Oyón/Oion, Peñacerrada-Urizaharra, Samaniego, Villabuena de Álava/Eskuernaga, Yécora y Zambrana.
	LAUDIO	adm_laudio@ertzaintza.net	Amurrio, Artziniega, Ayala/Aiara, Llodio, Okondo, Orduña, Orozko y Valdegovia
	VITORIA-GASTEIZ	adm_gasteiz@ertzaintza.net	Alegria-Dulantzi, Armiñón, Arraia-Maeztu, Arzua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Campezo/Kanpezu, Cuartango, Elburgo, Harana/Valle de Arana, Iruña de Oca/Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Lantarón, Legutiano, Ribera Alta, Ribera Baja/ Erribera Beitia, Salinas de Añana, Salvatierra-Agurain, San Millan, Urkabustaiz, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo, Zigoitia y Zuia.
BIZKAIA	BALMASEDA	adm_balmaseda@ertzaintza.net	Alonsotegi, Arcentales, Balmaseda, Carranza, Galdames, Gordexola, Güeñes, Lanestosa, Sopuerta, Trucios y Zalla.
	BASAURI	adm_basauri@ertzaintza.net	Basauri y Anteiglesia de San Esteban-Etxebarri Doneztebeko Elizatea
	BILBAO	adm_bilbao@ertzaintza.net	Bilbao.
	DURANGO	adm_durango@ertzaintza.net	Abadiño, Amorebieta-Echano, Arantzazu, Areatza, Artea, Atxondo, Bedia, Berriz, Dima, Durango, Elorrio, Garay, Igorre, Iurreta, Izurtza, Lemoa, Mañaria, Otxandio, Ubidea, Zaldibar y Zeauri
	ERANDIO	adm_erandio@ertzaintza.net	Derio, Erandio, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Loiu, Sondika y Zamudio.
	GALDAKAO	adm_galdakao@ertzaintza.net	Aracaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Galdakao, Ugao-Miraballes, Zaratamo y Zeberio
	GERNIKA-LUMO	adm_gernika@ertzaintza.net	Ajangiz, Arratzu, Arrieta, Bakio, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gauteguiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Laukiz, Lemoniz, Maruri, Mendata, Meñaka, Morga, Mundaka, Mungia, Murueta, Muxika, Nabarniz y Sukarrieta.
	GETXO	adm_getxo@ertzaintza.net	Barrika, Berango, Getxo, Gorliz, Plentzia, Sopolana y Urduliz
	MUSKIZ	adm_muskiz@ertzaintza.net	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbana, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi y Zierbena
	ONDARROA	adm_ondarroa@ertzaintza.net	Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Guizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz y Ondarroa.
GIPUZKOA	SESTAO	adm_sestao@ertzaintza.net	Barakaldo, Sestao y Valle de Trapaga-Trapagan
	AZKOITIA	adm_azkoitia@ertzaintza.net	Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bidegoyan, Errezil y Zestoa.
	BEASAIN	adm_beasain@ertzaintza.net	Abaltzisketa, Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Ikaztegieta, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutilloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama y Zerain
	BERGARA	adm_bergara@ertzaintza.net	Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate-Mondragon, Bergara, Elgeta, Eskoriatza y Leintz-Gatzaga, Oñati y Soralue-Placencia de las Armas.
	DONOSTIA	adm_donostia@ertzaintza.net	Donostia-San Sebastián
	EIBAR	adm_eibar@ertzaintza.net	Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendara y Mutriku.
	HERNANI	adm_hernani@ertzaintza.net	Aduna, Alkiza, Andoain, Asteasu, Astigarraga, Hernani, Larraul, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Villabona y Zizurkil.
	IRUN	adm_irun@ertzaintza.net	Hondarribia e Irún.
	RENTERIA	adm_renteria@ertzaintza.net	Lezo, Olartzun, Pasala y Rentería
	TOLOSA	adm_tolosa@ertzaintza.net	Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ernialde, Ibarra, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa y Tolosa.
	ZARAUTZ	adm_zarautz@ertzaintza.net	Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orrio, Zarautz y Zum
	ZUMARRAGA	adm_zumarraga@ertzaintza.net	Ezkio-Itxaso, Legazpi, Urretxu y Zumarraga